

# BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

3761

*EBAZPENA, 2025eko uztailaren 18koa, Deskarbonizazio zuzendariarena, zeinaren bidez alde zurreko baimena eta eraikitze baimena ematen baitira Elgea-Itxaso zirkuitu bakuneko energia elektrikoa garraiatzeko 220 kV-eko linea berritzeko proiekturako, T-389-SE Itxaso tartean, Elgeako azpiestazioaren eta Itxasoko azpiestazioaren artean, Arabako eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetan. Espedienteak: 01 AT-Y-2023-00038/ 20 AT-Y-2023-00125.*

## AURREKARIAK

1.– 2023ko urriaren 25ean, Red Eléctrica de España SAUK enpresak (helbidea: Paseo del Conde de los Gaitanes 177, 28109 Alcobendas, Madril) alde zurreko eta eraikitze baimena eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena eskatu zituen, Elgea-Itxaso zirkuitu bakuneko energia elektrikoa garraiatzeko 220 kV-eko linea berritzeko proiekturako, T-389-SE Itxaso tartean, Elgeako azpiestazioaren eta Itxasoko azpiestazioaren artean, Arabako eta Gipuzkoako lurralde historikoetan. Horretarako, eskabidearekin batera, proiektu teknikoa eta ingurumen-inpaktuaren azterketa aurkeztu zituen.

2.– Proiektu hori jendaurrean jarri da hogeita hamar eguneko epean, hauetan ezarritakoa betetzeko: martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuaren 9. eta 10. artikuluetan (2020-04-24ko EHAA) eta abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren 144. artikuluan (2000-12-27ko BOE), azken testu horren beraren azken xedapenetako lehenengoarekin bat; Sektore Elektroari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 53. artikulutik 56. artikulura bitartekoetan (2013-12-27ko BOE); Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean (2013-12-11ko BOE); eta Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legean (2021-12-31ko EHAA).

3.– Informazioa jendaurrean jartzeko izapidea betetzeko, iragarkia argitara eman zen GAO n (2024-06-04), ALHAOn (2024-06-17), EHAAn (2024-06-04) eta <https://www.euskadi.eus/energia-eta-meategi-inguruko-proiektuei-buruzko-informazioa/web01-a2energi/eu/> webgunean.

4.– Informazioa jendaurrean jartzeko izapidearekin batera, 2024ko ekainaren 4an, Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak dagokion separata bidali zien Zegama, Segura, Zerain, Mutiloa, Gabiria eta Ezkio-Itxasoko udalei eta Gipuzkoako eta Arabako Partzuergo Orokorrari, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuari, I-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAUri, Telefónica SAri, Administrador de Infraestructuras Ferroviarias-i (ADIF), Kantauriko Konfederazio Hidrografikoari, Enagas Transporte SAUri, Aire Segurtasuneko Estatuko Agentziari (AESAs) eta Uraren Euskal Agentziari (URA), eskatuz eskaerarekin ados edo eskaeraren kontra zeuden zehazteko eta, hala behar izanez gero, bidezko baldintza teknikoak ezartzeko.

5.– Proiektuaren alde ala kontra zeuden adierazteko eta, hala behar izanez gero, baldintza teknikoak ezartzeko egin zitzaizen eskaera dela eta, Telefónica SAk soilik erantzun zuen, eta adierazi zuen ez zuela inolako eragozpenik proiektua exekutatzeko. Idatzi hori enpresa eskatzaileari helarazi ondoren, hark erantzun zuen kontuan hartu zuela, eta berariaz onartu zituen zegozkion ondorioetarako ezarritako baldintzak.

6.– Informazioa jendaurrean jartzeko epearen barruan, 2024ko ekainaren 4an, Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak ingurumen-inpaktuaren azterketa bidali zien Zegama, Segura, Zerain, Mutiloa, Gabiria eta Ezkio-Itsasoko udalei eta Gipuzkoako eta Arabako Partzuergo Orokorrari, Administrador de Infraestructuras Ferroviarias-i (ADIF), Kantauriko Konfederazio Hidrografikoari, Enagas Transporte SAUri, I-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAUri, Telefónica SAri, Aire Segurtasuneko Estatuko Agentziari (AESA) eta Uraren Euskal Agentziari (URA), Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuari, Kultura Zuzendaritza Nagusiari, Nekazaritzako eta Lurralde Oreekako Zuzendaritza Nagusiari eta Mendien eta Ingurune Naturalaren Zuzendaritza Nagusiari, Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzari, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzari, Kultura Ondarearen Zuzendaritzari, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzari eta Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzari, eta Ekologistak Martxan Gipuzkoa, Eguzki-Asociación Recreativa Eguzkizaleak, Seo Birdlife eta Itsas Enara Ornitologi Elkarte talde ekologistei, egokitzen jotzen zituzten oharrak eta alegazioak eskatuz.

7.– Ingurumen-inpaktuaren azterketari dagokionez, kontsulten izapidean, honako administrazio publiko eta pertsona interesdun hauen txostenak edo alegazioak jaso ziren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan, eta sustatzaileari bidali zitzaizkion, kontuan har zitzan eta erantzun ziezaien:

– Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza. II Ak emandako datuetan oinarrituta, uste du onargarriak direla faunaren eta lurralde-konektagarritasunaren gaineko eraginak, bai eta proiektuaren paisaia-inpaktua ere. Txosten hori enpresa eskatzaileari helarazi ondoren, enpresak erantzun zuen kontuan hartu zuela, eta bere gain hartu zuen aurkeztutako II An jasotako prebentzio- eta zuzenketa-neurriak hartzeko eta garatzeko betebeharra, bai eta intereseko landaredi-formazioetan eragindako eremuak leheneratzeko proiektu bat Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzan bertan aurkezteko beharra ere, bai eta Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundietako erakunde eskudunetan ere.

– Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza. Obrak egiteko behar diren prebentzio- eta zuzenketa-neurriak planteatu ditu, bai eta baldintza batzuk ere. Txosten hori enpresa eskatzaileari helarazi ondoren, enpresak erantzun zuen kontuan hartu zuela bertan adierazitakoa, eta ekintza hauek gauzatuko zituela: ondare-elementu balizatuen kopurua handitzea, barnean hartuz San Adriango Tumulua, Aizkorriko Estazio megalitikoaren parte dena; 425R eta 426R dorreetarako sarbide berriak zehaztea, bide historikoari eta haren zortasun-eremuei kalterik ez eragiteko moduan; Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuari lanen hasiera aldeztetik behar bezala jakinaraztea; eta, azkenik, eskakizun horiek guztiak Proiektuaren Ikuskapen Arkeologikoa kontratatzean erabilitako espezifikazioetan txertatzea.

– Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza. Adierazi du ez duela aurreikusten proiektatutako esku-hartzeak eremuan dagoen arriskua larriagotzea, baina kontuan hartu beharko dela arriskua eta neurri egokiak hartu beharko direla hura arintzeko, bai obretarako prebentzio- eta zuzenketa-neurrietan, bai proiektuaren ustiapen-fasean. Enpresa eskatzaileari txosten hori helarazi zitzaion, eta erantzun zuen harekin ados zegoela.

– Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza. Adierazi du zuzendaritza horrek ez duela beharrezkotzat ikusten horri buruzko txostenik egitea. Enpresa eskatzaileari txosten hori helarazi zitzaion, eta enpresak adierazi zuen kontuan hartu zuela eta espresuki onartu zuela.

– Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusia. Eusko Jaurlaritzako Ondarea Kultura Ondarearen Zentroko bisorea erabiltzea gomendatzen du, babestutako ondare-elementuen kokapena eta existentzia detektatzeko; elementu horiek Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legean ezarritakoa bete beharko dute. Donejakue bidearen gaineko eragin posible bat detektatu da, eta jakinarazi da Donejakue bidearen babesa 2/2012 Dekretuak arautzen duela (66/2022 Dekretuaren bidez aldatua). Txosten hori enpresa eskatzaileari helarazi ondoren, enpresak adierazi du kontuan hartu duela aipatutako araudi aplikagarria, eta obretan zehar obra eta lan osagarrietatik eratorritako lur-mugimendu guztien kontrol arkeologikoa mantenduko dela.

– Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritzako eta Lurralde Oreko Zuzendaritza Nagusia. Adierazi du ez dela aldatzen goi-tentsioko zutoinen kokapena; beraz, ez dago eraginik balio estrategiko handiko lurzoruetan. Txosten hori enpresa eskatzaileari helarazi ondoren, enpresak adierazi du kontuan hartu duela zuzendaritza hori aurka ez egotea, eta berariaz onartzen dituela ezarritako baldintzak, dagozkion ondorioetarako.

– Maria Teresa Urbizu Izagirre. Trazadurarekin ados ez dagoela adierazi du, linea elektriko batzuk bere baserritik gertu daudelako eta horiek osasunean ondorio kaltegarriak eragiten dituztelako. Txosten hori enpresa eskatzaileari helarazi ondoren, enpresak adierazi du dorreen kokapenak bete egiten duela distantziei eta segurtasun-neurriei dagokienez arloko indarreko araudia (Goi-tentsioko Aire Lineen Erregelamendu Teknikoak), eta 100 eta 500 metroko distantziak teknikoki posible denean bakarrik aplikatzekoak direla, hori ezein arauk ez baitu eskatzen. Osasunean eragiten dituen ondorioei dagokienez, adierazi du betetzen direla, alde batetik, sektoreko araudi elektrikoa; bestetik, Kontseilu Europarrak gomendatutako eremu elektrikoen eta magnetikoen intentsitate-balioak; eta, azkenik, eragindako autonomia-erkidegoen gomendioak, inola ere ez baitira gainditzen Europar Batasuneko Kontseiluaren Gomendioak ezarritako erreferentzia-mailak (5 kV/m eremu elektrikorako eta 100 µT eremu magnetikorako).

8.– Informazioa jendaurrean jartzeko izapidearekin batera, 2024ko ekainaren 4an, Arabako Lurralde Ordezkaritzak organismo hauei jakinarazi zien [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) webgunean eskura zituztela erreferentzia-proiektua, ingurumen-inpaktuaren azterketa eta iragarkia: Barrundia, San Millán/Donemiliaga, Asparrena eta Zalduondoko udalak, Gipuzkoako eta Arabako Partzuergo Orokorra, Arabako Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zuzendaritza, Natura Ingurunearen Zuzendaritza (Nat. Ondarea eta Jasangarritasunaren Zerb.), Bide Azpiegituretako Zuzendaritza, Mendien Zuzendaritza eta Nekazaritza Saila, Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza, Kultura Ondarearen Zuzendaritza, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza, URA-Uraren Euskal Agentzia, I-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAU, Telefónica SA, Aire Segurtasuneko Estatuko Agentzia (AESAs), eta Ekologistak Martxan Araba, Arabako Natur Institutua, Gaden, Seo Birdlife, Eguzkizaleak eta Mendiak Aske elkarteak. Era berean, proiektuaren balizko ondorio esanguratsuei buruzko txostena egiteko eskatu zitzaizen, egokitzen jotzen zituzten baldintza teknikoak ezarri edota egokitzen jotzen zituzten alegazioak eginez.

9.– Kontsulten izapidean, Arabako Lurralde Ordezkaritzan honako administrazio publiko eta pertsona interesdunen txostenak edo alegazioak jaso ziren, eta sustatzaileari bidali zitzaizkion, kontuan har zitzan eta erantzuna eman zezan:

– Arabako Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zuzendaritza. Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak baldintza batzuk ezartzen ditu obra egiteko, eta ohartarazten du, halaber, berehala jakinarazi beharko zaiola Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailari proiektuaren aldaketa oro, baldin eta eragin arkeologikoa izan badezake, edo

gainerako trazaduraren lanetan zehar egin daitekeen aurkikuntza arkeologiko oro. Txosten hori enpresa eskatzaileari helarazi ondoren, enpresak kontuan hartu ditu ezarritako baldintzak, eta adierazi du GAEMek egindako txostenean jasotako gainerako neurriak gehituko dituela proiektuaren ikuskapen arkeologikoa kontratatzean erabilitako espezifikazioetan; era berean, konpromisoa hartzen du Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailari lanak hasi direla jakinarazteko, eskatutako aurrerapenarekin.

– Kultura eta Kirol Saila - AFA. Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak adierazi duenez, IV. eranskineko 1. eta 2. zerrendetan babestutako bide historikoetan, harrizko galtzadetan eta zubien gaineko trazadura-zatietan, oinezkoak, zikloturistak edo zaldizkoak baino ezin dira ibili, eta berariaz debekatuta dago motordun ibilgailuak edo bestelako makineria handik igarotzea (66/2022 Dekretuaren 13.1 artikulua). Bestalde, aipatu du indargarrietako batzuk Bidetik oso gertu daudela, eta hura ezingo dela sarbide gisa erabili, 66/2022 Dekretuak berariaz debekatzen duelako. Txosten hori enpresa eskatzaileari helarazi ondoren, enpresak kontuan hartu du jakinarazitako guztia. Halaber, adierazi du San Adriango haitzuloaren inguruan eta Donejakue bidearen tartean helikopteroz eta oinez iristea proposatu duela, eta, beraz, eremu horretan ez dela garabirik edo makineriarik beharko, eragina minimizatzeke asmoz. Bestalde, 425R eta 426R dorreetarainoko sarbide alternatiboa planteatzen da, San Adriango bidea saihesteko. Era berean, adierazi du obretan zehar obra eta lan osagarrietatik eratorritako lur-mugimendu guztien kontrol arkeologikoa mantenduko dela.

– Natura Ingurunearen Zuzendaritza (Nat. Ondarea eta Jasangarritasunaren Zerb.) – AFA. Aldeko txostena egin zuen, 4. puntuan zehaztutako babes-neurriak eta baldintza osagarriak betetzen badira. Txosten hori enpresa eskatzaileari helarazi ondoren, enpresak adierazi du ezarritako babes-neurri guztiak eta baldintza osagarri guztiak kontuan hartu dituela eta haiek betetzeko konpromisoa hartzen duela. Halaber, adierazi du lanen hasieraren berri emango diola Natura Ondarearen Zerbitzuari astebete lehenago gutxienez.

– Nekazaritza Saila – AFA. Nekazaritza Garatzeko Zerbitzuak proiektua gauzatzeak izan ditzakeen eraginak balioetsi ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialari dagokionez, eta adierazi du: alde batetik, proiektu hori ez dela kontuan hartuko Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren ikuspegitik, ez baitago nekazaritzako eta abeltzaintzako gisa sailkatutako lurzuaren galera iraunkorrik; beste alde batetik, Arabako Lurralde Historikoko Landa Bideen Erregistroan inskribatutako landa-bideei dagokienez, adierazi du ezen, eragiten dien edozein jarduketa egin aurretik, dagokion obra-baimenaren txostena eskatu beharko zaiola Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Garatzeko Zerbitzuari. Txosten hori enpresa eskatzaileari helarazi ondoren, enpresak adierazi du txostenean adierazitakoa kontuan hartu duela eta hori betetzeko konpromisoa hartzen duela.

– Eusko Jaurlaritzako (EJ) Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza. Adierazi du zein diren Gipuzkoako zatian uholde arriskua duten eremuak, eta aipatu du ez dagoela indargarrikerik eremu horietan. Bestalde, adierazi du zein diren Araban eta Gipuzkoan baso-suteak izateko arriskua duten eremuak. Ondorioztatu du ez duela aurreikusten proiektatutako esku-hartzeak eremuan dagoen arriskua larriagotzea, baina kontuan hartu beharko dela arriskua eta neurri egokiak hartu beharko direla hura murrizteko, bai obretarako prebentzio- eta zuzenketa-neurrietan, bai proiektuaren ustiapen-fasean. Txosten hori enpresa eskatzaileari helarazi ondoren, enpresak adierazi du txostenean adierazitakoa kontuan hartu duela eta hori betetzeko konpromisoa hartzen duela.

– Kultura Ondarearen Zuzendaritza – EJ. Adierazi du inolako ibilgailu motordunik ezingo duela zirkulatu San Adriango bide osoan (Donejakue bidea eta galtzada historikoa). Horrez gain, Aizkorriko Estazio Megalitikoko San Adriango Tumulua balizatu beharko da, eta estazio megalitikoko 3. zonatik kanpoko eremu batean kokatu beharko da dagokion pilotze-eremua, inpaktu oro minimizatzeko. Txosten hori enpresa eskatzaileari helarazi ondoren, enpresak adierazi du txostenean adierazitakoa kontuan hartu duela eta hori betetzeko konpromisoa hartzen duela.

– Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza – EJ. Kontsultarako emandako espedientearen dokumentazioa aztertu ondoren, adierazi du zuzendaritza horrek ez duela beharrezkotzat jotzen horri buruzko txostenik egitea. Txosten hori enpresa eskatzaileari helarazi ondoren, enpresak adierazi du kontuan hartu duela aurka ez egoteari buruzko idazkia, eta berariaz onartzen dituela ezarritako baldintzak, dagozkion ondorioetarako.

– Telefónica SAK adierazi du ez duela inolako eragozpenik aipatutako proiektua exekutatzeari dagokionez, baldin eta betetzen bada telekomunikazio-lineen paralelismoei eta gurutzamenduei buruz indarrean dagoen araudia, eta, bereziki, Goi eta Behe Tentsiorako Erregelamendu Elektroteknikoak. Txosten hori enpresa eskatzaileari helarazi ondoren, enpresak kontuan hartu du aurka ez egoteari buruzko idazkia, eta berariaz onartu ditu ezarritako baldintzak, dagozkion ondorioetarako.

10.– 2024ko uztailaren 10ean, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioko Energia Elektrikoaren Zuzendariordetza Nagusiak aldeko txostena egin zuen erreferentziako instalazioari buruz, abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 35.2 artikuluan, 1955/2000 Errege Dekretuaren 114. artikuluan eta abenduaren 5eko 5/2019 Zirkularren 16.1.a) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Adierazi zuen, halaber, txostenaren xede diren jarduketak jasota daudela «Energia elektrikoaren garraio-sarearen garapen-plana 2021-2026» dokumentuan, Ministro Kontseiluaren 2022ko martxoaren 22ko Erabakiaren bidez onetsia (2022ko apirilaren 19ko BOE).

11.– 2025eko ekainaren 5ean, Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2025eko maiatzaren 21eko Ebazpena argitaratu zen (EHAA, 105. Zk.), zeinaren bidez ingurumen-inpaktuaren adierazpena egiten baita Red Eléctrica de España SAUK sustatutako «Elgea-ltxaso zirkuitu bakuneko energia elektrikoa garraiatzeko 220 kV-eko linea berritzeko proiekturako, T-389-SE ltxaso tartean.

Ebazpen horretan, aldeko irizpena eman zitzaion aipatutako proiektuaren ingurumen-inpaktuaren adierazpenari, proiekturako baldintzak eta babes- eta zuzenketa-neurriak ezarriz, bai eta ingurumena babesteko jarraitu beharreko ingurumena zaintzeko programa ere.

## OINARRI JURIDIKOAK

1.– Deskarbonizazio Zuzendaritza da espediente hori ebazteko eskumena duen organoa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuak (2024-12-10eko EHAA) esleitutako eskumena erabiliz.

2.– Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legeak 39. artikuluan ezartzen duenez, energia elektrikoa banatzeko instalazioak martxan jartzeko, aldatzeko, eskualdatzeko eta behin betiko ixteko, beharrezkoak izango dira alde aurreko administrazio-baimena eta eraikitze administrazio-baimena.

3.– Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak (2013-12-11ko BOE) eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean (2021-12-31ko EHAA) aurreikusitakoak zehazten du zer proiektu publiko edo pribatuk bete beharko duten ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta (II.D eranskina).

4.– Martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuaren bidez, honako instalazio hauek eraikitze, aldatzeko, ustiatzeko, eskualdatzeko eta ixteko administrazio-baimenerako prozedurak arautzen dira: energia elektrikoa ekoitzi, garraiatu nahiz banatzeko instalazioak, baita Euskal Autonomia Erkidegoan kontsumitzaileak konektatzeko harguneak, zuzeneko lineak eta instalazioak ere.

5.– Espedientea izapidetzean, kontuan hartu eta bete dira administrazio-prozedurari buruzko arauetan zein aipatutako legerian aurreikusitako prozedura-baldintzak eta -izapideak.

6.– Red Eléctrica de España SAU enpresa eskatzaileak oso-osorik erantzun die igorritako alegazioei.

7.– Proiektuak betetzen ditu aplikagarriak diren segurtasun-araudietan biltzen diren eskakizun teknikoak.

Aipatutako lege-manuak eta oro har aplikatu beharreko gainerako arauak ikusita, Deskarbonizazioko zuzendariak honako hau

#### EBAZTEN DU:

Artikulu bakarra.– Red Eléctrica de España SAUri aldez aurreko baimena eta eraikitze baimena ematea Elgea-Itxaso zirkuitu bakuneko energia elektrikoa garraiatzeko 220 kV-eko linea berritzeko proiekturako, T-389-SE Itxaso tartean, Elgeako azpiestazioaren eta Itxasoko azpiestazioaren artean, Arabako eta Gipuzkoako lurralde historikoetan.

Ebazpen hau aipatutako 48/2020 Dekretuan ezarritakoarekin eta baldintza orokor hauekin bat eman da:

1.– Onartutako proiektuari jarraikiz egin beharko dira obrak, kasu bakoitzean eskatu eta baimenduko diren aldaketekin.

2.– Zerbitzuan jartzeko epea hiru urtekoa izango da, ebazpen honen egunetik aurrera.

3.– Obrak bukatzen direnean, horren berri emango die instalazioen titularrak Arabako eta Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzei, hain zuzen ere, behin betiko errekonozimenduaren ondorioetarako eta ustiatzeko eta zerbitzuan jartzeko baimena emateko.

4.– Obrak egiteko beharrezkoak diren udal- eta probintzia-eskumeneko eta bestelako baimenak edo lizentziak edozein direla ere, eta horiek aparte utzi gabe ematen da ebazpen hau, eta eskatzaileak nahitaez eskuratu beharko ditu baimen horiek guztiak. Era berean, hirugarrenen eskubideak alde batera utzi gabe ematen da, eta jabetza-eskubidea salbu utzita.

5.– Proiektuaren exekuzioak bete beharko ditu proiektuko baldintzak, babes- eta zuzenketa-neurriak, bai eta ingurumena zaintzeko programa ere (Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak 2025eko maiatzaren 21ean formulatutako eta 2025eko ekainaren 5eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (105. zk.) argitaratutako Ingurumen Inpaktuaren Adierazpenean (IIA) ezarrita daude). Era berean, administrazioek, organismoek eta zerbitzu-enpresek kontsultafasean ezarritako baldintza teknikoak jaso beharko ditu. Sustatzaileak baldintza horiekiko adostasuna adierazi zuen.

2025eko irailaren 5a, ostirala

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraz, beronen aurka, gora jotzeko errekurtoa jar daskioke Trantsizio Energetikoko sailburuordeari, hilabeteko epean ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorriz, betiere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 18a.

Deskarbonizazio zuzendaria,  
GUILLERMO ALLENDE ARANGUIZ.